

1. BALIOAK:

Nobedadea:

Merkatuan ez dagoen zerbitzu bat eskaintzen du. Orain arte beste sare sozialak erabiliak izan dira baina haien helburua ez dago honetan espezializatua. Horrela, jendeak ezagutuko ditu kirol bereko adiskide potentzialak. Kiroletan adituak dauden pertsonak gomendatzen dute kirola beste jendearekin egitea eta ez bakarrik, aplikazio honek errazten du alderdi hau.

Lana erraztea:

Guk eskaintzen dugun zerbitzua helburu honetarako erraztasunak eskaitzen ditu. Kirolaz, adinaz, generoz eta ezaugarriaz filtratu dezake. Pertsona lotsatuentzat oso erabilgarria izan daiteke eta ez da beharrezkoa oso irekia izatea, beste sare sozialekin bezala. Aplikazio honek kirola egiteko lekuak erakusten ditu, saskibaloiean jokatzeko baduzu, hurbil dituzun jokalekuak agertuko dira; baita aplikazioan dituzun lagunak ea hor dauden ala ez. Bakardadea saihesten duen aplikazioa da, ezezagunetik harremanak sustatzen dituenaz.

Pertsonalizazioa:

Gure aplikazioa ahalbidetzen du bakoitzak nahi duen kirola hautatzea, baita sortu beharrezko profila pertsonalizatu; argazkia, biografia, zer kirol egiten dituzun edo hautatzea ea zure lagunek ikusi ahal duten ze jokalekutan zauden. Azken finean, sare sozial bat denez bideoak, argazkiak edo aurrerapenak igo ahal dituzu.

Arriskua murriztea:

Sare sozial honek ez ditu zure datu pertsonalak partekatzen zure baimena ez baduzu ematen; hala eta guztiz ere, bakarrik zure lagunekin partekatu ahal da, hau da, lagun bezala ezarrita dituzun pertsonekin.

Hainbat funtzionalitate ditu, gehienbat konpainiarik gabe egiten diren arrisku-kiroletan istripuak prebenitzeko, haien artean, mendiko edo errepidezko txirringarritza egiten dutenentzat GPS moduko bat dauka; mugimendurik sentitu ezean automatikoki larrialdiko zenbakira deituko du. Segurtasun mekanismo hau hautazkoa da, eta pertsonalizatu ahal da; hautatu behar duzu ea larrialdiko zenbakira edo ezagun bati deitzea, zenbat denbora egotea mugimendurik gabe deitu aurretik.

Gainera, bakarrik kirola egiteak arriskuak ekarri ahal ditu, istripu bat izanda eta aurrean esandako mekanismoa desaktibatuta izanda, beste pertsonekin bazoaz laguntza edukiko duzu.

Erabil erraztasuna:

Aplikazio hau erabiltzeko erraza da, guztiok erabil dezakete, ezarpen-menu oso intuitiboa du, eta beste sare sozial batzuen antzeko pertsonalizazioa; beraz, ia ez da esperientziarik behar hau erabiltzeko. Gainera, plataforma askotan erabili ahal da eta ez da behar sistema operatibo zehatzik.